



arkeoikuska 81-82

## FICHA TÉCNICA

Esta publicación ha sido promovida y subvencionada por la Consejería de Cultura del Gobierno Vasco.

Ha sido realizada por los Centros de Investigación y Conservación del Patrimonio vinculados a la Arqueología existentes en el País Vasco.

Entidades que han colaborado:

- Instituto Alavés de Arqueología
- Sociedad Aranzadi de Ciencias-Naturales
- Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico de Vizcaya
- Facultad de Filología y Geografía e Historia del País Vasco
- Museo de Arqueología de Álava
- Universidad de Deusto (Bilbao).

Coordinación: Amelia Baldeón Iñigo

Diseño: Miguel González de San Román

Solicitudes, intercambio e información:  
Gobierno Vasco.

Dirección del Patrimonio Histórico Artístico.  
Lakua (Vitoria-Gasteiz)

## ÍNDICE

PRESENTACIÓN Y PROLOGO

INTRODUCCIÓN

MAPA DE LOCALIZACION DE LOS ESTUDIOS

RELACIÓN DE CENTROS VINCULADOS A LA  
INVESTIGACIÓN ARQUEOLÓGICA EN EUSKADI

### TRABAJOS DE CAMPO

Excavaciones  
Excavaciones en Álava  
Excavaciones en Guipúzcoa  
Excavaciones en Vizcaya  
Prospecciones  
Prospecciones en Álava  
Prospecciones en Guipúzcoa  
Prospecciones en Vizcaya  
Protección del Patrimonio Arqueológico  
Protección del Patrimonio en Álava  
Protección del Patrimonio en Guipúzcoa  
Protección del Patrimonio en Vizcaya

### PATRIMONIO ARQUEOLÓGICO MUEBLE

Museo de Arqueología de Álava  
Fondos existentes en la Sociedad Aranzadi  
(Museo de San Telmo)  
Museo Arqueológico, Etnográfico e  
Histórico de Vizcaya

### TRABAJOS DE LABORATORIO

Investigaciones en Álava  
Investigaciones en Guipúzcoa  
Investigaciones en Vizcaya

### ASISTENCIA A CONGRESOS

REPERTORIO DE PUBLICACIONES

### INFORME DE LA FACULTAD DE FILOLOGÍA Y GEOGRAFÍA E HISTORIA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

Departamento de Prehistoria y Arqueología  
Departamento de Historia Antigua

### a

a.1.  
a.1.1.  
a.1.2.  
a.1.3.  
a.2.  
a.2.1.  
a.2.2.  
a.2.3.  
a.3.  
a.3.1.  
a.3.2.  
a.3.3.

### b

b.1.  
b.2.  
b.3.

### C

c.1.  
c.2.  
c.3.

### d

### e

e.1.  
e.2.

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA ETA HITZAURREA

SARRERA

IKASKETEN LEKUTZE-MAPA

EUSKADIKO ARKEOLOGI IKERKETAN  
DIHARDUTENEN ZENTRU-ZERRENDA

### LANDA-LANAK

Indusketak  
Arabako indusketak  
Gipuzkoako indusketak  
Bizkaiko indusketak  
Miaketak  
Arabako miaketak  
Gipuzkoako miaketak  
Bizkaiko miaketak  
Arkeologi Ondarearen babespena  
Arabako Ondare-babespena  
Gipuzkoako Ondare-babespena  
Bizkaiko Ondare-babespena

### ONDARE ARKEOLOGIKO ERABILKORRA

Arabako Arkeologi Museoa  
Aranzadi Elkartean (San Telmo Museoa)  
dauden gordailuak  
Bizkaiko Arkeologi, Etnografi eta  
Kondaira-Museoa

### LABORATEGIKO LANAK

Arabako ikerketak  
Gipuzkoako ikerketak  
Bizkaiko ikerketak

### KONGRESOETAKA AGEKTZEA

ARGITALPEN-ZERRENDA

### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO FILOLOGIAKO, GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO FAKULTATEKO TXOSTENA

Prehistori eta Arkeologi Departamentua  
Aintzin Histori Departamentua

## PROLOGO

La disciplina de la Arqueología, mantenida en esta Comunidad Autónoma con una altura y entusiasmo que excede probablemente de lo que cabría esperarse de un apoyo institucional con innegables carencias y de una comprensión a nivel social no excesivamente extendida, requiere quizá más que ninguna otra un cierto ámbito de universalidad y de comunicación científica. Su ejercicio consiste, por su propia esencia, en un denodado esfuerzo por sacar a la luz lo que parecía oculto y perdido para siempre, en darnos a conocer a todos cuáles son las raíces y las bases sobre las que nuestra propia vida, hasta un extremo que a veces ni sospechamos, está construida.

Esta primera publicación, con la que el Gobierno de Euskadi reconoce esta vocación esencial de la actividad arqueológica, no es sino el primer paso de esa tarea de dar cuenta y de explicar todo lo que la tarea ininterrumpida, a veces silenciosa y siempre abnegada, de tantos especialistas puede ofrecer para una comprensión cada vez más lúcida de quiénes somos, de dónde venimos y, por tanto, a dónde vamos.

El Gobierno Vasco se compromete aquí públicamente a contribuir, en cuanto tarea específicamente suya e irrenunciable, a que todo este esfuerzo encuentre el eco y la repercusión que la sociedad, tanto o más que la propia arqueología, necesita. Este primer número, dando cuenta de las actividades desarrolladas durante los años 1981 y 1982, es el primer paso de esta tarea que deberá ser continuada y cada vez más ambiciosa. Sólo con un conocimiento profundo de todo lo que va siendo recuperado en nuestras tierras podremos comprender lo que tiene de universal y de eterno toda actividad humana desarrollada en el marco de unos condicionamientos físicos y culturales determinados.

Que estas líneas sirvan, si fuera necesario, de agradecimiento y homenaje a cuantos han desarrollado la imprescindible tarea de que da cuenta este número.

*Aingeru Zabala Uriarte*  
DIRECTOR DEL PATRIMONIO  
HISTORICO-ARTISTICO Y BIBLIOTECAS

## HITZAURREA

Autonomia-Elkartean, orain arte, Erakundeek hain zabarkeria nabariz alboratu izan ohi duten arren, gorenetakoa mailaraino jaso eta ardura handiz landu da Arkeologia gure artean; hala ere, gizartean, arrakasta nabaririk ez du izan, eta, jakina da, beste edozein arlok baino zientzia-harreman ugariagoak behar dituela arlo honek beste zibilizazio-modu batzurekin.

Behin-betirako izkutatu eta galdutakotzat ematen zirenak, su eta garrezko ahaleginez, argitaratzea da bere-berea duen egitekoa. Edo beste modu bate-tara azalduz, gure giza-bizitzak dituen sustrai eta oinarriak ezagutaraztea du helburutzat, sarritan, guk uste baino lotuagoak eta uztartuagoak bait gaude gure aintzinakoekin.

Lehen argitalpen honen bidez, Eusko Jaurlaritzak, Arkeologia-lan honen funtsezko egiteko hori sendestea eta aitortzea nahi du. Bestalde, argitalpen honek, hainbat eta hainbat espezialistek, etengabe, isilean eta gehienetan inoren txalo gabe, egiteratzen duten ahalegina kaleratzea eta ulertarazte-bideak zabaltzea nahi dugu. Era honetan, gainera, herri gisa zer garen, nondik gatozen eta nora goazen hobeto eta sakonago ulertuko bait dugu.

Eusko Jaurlaritzak, bere-bere eta bazter ezinezkotzat jotzen du lan hau; eta ikerketa-ahalegin horiek, gizartean, merezi duten oihartzuna eta eragina izan dezaten ahaleginduko dela aldarrikatzen du gizartearen aurrean. Lehen ale honetan, 1981 eta 1982.eko urteetan gauzatu diren ihardunak argitaratzen dira, eta etengabeko eta gehiagorantzko lan baten aintzin urrats bat besterik ez da. Izan ere, gure lurrazpitan dugun altxorraz jabetzen garen heinean adituko bait dugu, giza-lanak, halako eta holako leku eta baldintzapean antolatu denak ere, gainontzeko giza-erakundeekin duen kideasuna.

Hain beharrezko dugun lanean ihardun izan" diren gizon eta emakumeek, lerro hauen bidez, har bezate gure omenaupada eta jaso bezate gure esker-rona.

*Izp. Aingeru Zabala Uriarte*  
HISTORI-ARTE ETA BIBLIOTEKETAKO  
ONDAREAREN ZUZENDARIA

## **INTRODUCCIÓN**


Los trabajos aquí reseñados corresponden a las actividades que, en materia de Arqueología, se han llevado a cabo durante los años 1981 y 1982 en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Así mismo hemos constatado las actividades que las distintas entidades de investigación a través de sus miembros han realizado en otros ámbitos geográficos, ciñéndonos principalmente a planes de investigación concretos y publicaciones.

## **SARRERA**

Hemen aipatzen diren lanak Euskal Komunitate Autonomoan 1981 eta 1982an Arkeologi alorrean eraman diren iharduerei dagokie. Ekarri ditugu, baita ere, beste barruti geografikoetan entitate ikertzaile ezberdinek, beraien lagunen bitartez, egindako ekintzak, bereziki ikerketa zehatzen plangintza eta argitalpenetara mugatuz.

# euskalerrria · país vasco

Excavaciones.  
Indusketak.



## ALAVA / ARABA

1. Cueva de Fuente Hoz.  
*Fuente Hoz haizuloa.*
2. Solacueva de Lacoymonte.  
*Lakozmonteko Solakueba.*
3. Los Castros de Lastra.  
*Lastrako Kastroak.*
4. «Campas de Itaida».  
*«Itaidako Zelaiak».*
5. La Hoya.  
*La Hoya.*
6. Yacimiento romano de Arcaya.  
*Arkaiaiko erromatar aztarnategia.*
7. Yacimiento de San Miguel de Atxa.  
*Atxako San Migel aztarnategia.*
8. Cueva de Itaida I.  
*Itaida I Haizuloa.*
9. Yacimiento de Arrigorrista.  
*Arrigorristako aztarnategia.*
10. Yacimientos al aire libre del Río Rojo.  
*Rio Rojoko airezabaleko aztarnategiak.*
11. Cueva de Kukuma.  
*Kukuma haizuloa.*
12. Sondeos Estratigráficos y excavaciones de urgencia  
*Estratigrafi zundaketak eta premiazko indusketak*

## GUIPUZCOA / GIPUZKOA

1. Cueva de Amalda.  
*Amalda haizuloa.*
2. Túmulo de Trikuaiuzti.  
*Trikuaiuzti Tumulua.*
3. Monolito de Supitaitz.  
*Supitaitz monolitoa.*
4. Cueva de Torre.  
*Torre haizuloa.*

## VIZCAYA / BIZKAIA

1. Cueva de Arenaza.  
*Arenaza haizuloa.*
2. Cueva de Goikolau.  
*Goikolau haizuloa.*
3. Asentamiento de I Iso Betaio.  
*I Iso Betaioiko egoitza.*
4. Dolmen de Cabaña 4.  
*«Cabaña 4» trikuharria.*
5. Castro de Maruelexa.  
*Maruelexa Kastroa.*
6. Cueva de Santa Catalina.  
*Santa Katalinaren haizuloa.*
7. Necrópolis de San Juan.  
*San Juan Hilerria.*
8. Excavaciones de urgencia.  
*Premiazko Indusketak.*  
*Terlengizko Teileria.*

## **RELACIÓN DE CENTROS VINCULADOS AL DESARROLLO DE LA ARQUEOLOGÍA EN EUSKADI**

### **Museos**

- Museo de Arqueología de Álava. Vitoria.
- Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico de Vizcaya. Bilbao.

### **Universidades**

- Universidad del País Vasco (Facultad de Filología y Geografía e Historia).
- Universidad de Deusto. (Facultad de Geografía e Historia).

### **Centros de Investigación**

- Sociedad «Aranzadi» de Ciencias. San Sebastián.
- Instituto Alavés de Arqueología. (Consejo de Cultura de la Excelentísima Diputación Foral de Alava).

### **Colaboraciones**

Son muy importantes para el desarrollo de la Prehistoria y Arqueología vascas, las considerables colaboraciones que en los distintos territorios se reciben. En unos casos son Sociedades de Estudio, grupos de trabajo de implantación local e incluso particulares que, en número cada vez más importante, colaboran con notable interés y aprovechamiento en ciertos campos. Su enumeración sería prolija y sólo vamos a referirnos a la Sociedad de Estudios Vascos, aun reconociendo la importancia de numerosos grupos locales y comarcales.

## **EUSKADIN ARKEOLOGIAREN GARAPENAREKIN LOTURIKO ZENTRU-ZERRENDA**

### **Museoak**

- Arabako Arkeologi Museoa. Gasteiz.
- Bizkaiko Arkeologi, Etnografi eta Kondaira-Museoa. Bilbo.

### **Unibertsitateak**

- Euskal Herriko Unibertsitatea (Filologiako, Geografia eta Historiako Fakultatea).
- Deustuko Unibertsitatea (Geografia eta Historiako Fakultatea).

### **Ikerketa-Zentruak**

- «Aranzadi» Zientzi Elkartea. Donostia.
- Arkeologi Institutu Arabarra (Arabako Foru-Aldundiaren Kultur Kontseilua).

### **Lankidetzak**

Lurralde ezberdinetan izaten den lankidetzak handia oso garrantzitsua da Euskal Historiaurre eta Arkeologiaren garapenarako. Batzutan, Ikas-Elkar-teak dira lankideok, bestetan lekuan lekuko lan-taldeak eta baita partikularrak ere, geroz eta gehiago direlarik zenbait gaitan arreta eta probetxu handiarekin laguntzen dutenak. Hauen aipamena luzea izanik, Eusko-Ikaskuntza bakarrik aipatuko dugu hemen, nahiz eta hainbat talde lokal eta komarkalen garrantzia aitortu.

## **a. TRABAJOS DE CAMPO**

Entre los trabajos de campo se consideran diversos apartados. Por un lado las excavaciones sistemáticas, por otro lado las prospecciones y sondeos y finalmente los trabajos relacionados con la salvaguarda de los restos arqueológicos que será incluido en el apartado correspondiente.

### **a.1. EXCAVACIONES**

Las excavaciones llevadas a cabo en los distintos territorios de la Comunidad han sido planificadas por las entidades siguientes: Instituto Alavés de Arqueología (Álava); Sociedad de Ciencias «Aranzadi» (Guipúzcoa); Museo Arqueológico, Etnográfico e Histórico de Vizcaya (Vizcaya).

Dichas excavaciones han sido subvencionadas en general por las respectivas Diputaciones Forales, excepto casos muy concretos que referiremos puntualmente. Los equipos de trabajo han estado integrados principalmente por los miembros de las entidades antes mencionadas y de las Universidades de Deusto (Bilbao) y de Filosofía y Letras del País Vasco (Vitoria).

## **a. LANDA-LANAK**

Landa-lanen artean atal ezberdinak hartzen dira gogotan. Alde batetik indusketa sistematikoak, bestetik miaketa eta zundaketak, eta, azkenik geldikin arkeologikoaren babespen-lanei dagokien atalaren barnean emango direnak.

### **a.1. INDUSKETAK**

Komunitateko lurralde ezberdinetan aurrera eraman diren indusketa horien plangintza erakunde hauen esku egon da: Arkeologi Institutu Arabarra (Araba); «Aranzadi» Zientzi Elkarte (Gipuzkoa); Bizkaiko Arkeologi, Etnografi eta Kondaira-Museoa (Bizkaia).

Tokian tokiko Foru-Aldundiek lagunduak izan dira-, oro har, indusketa hauek, puntualki aipatu ditugun kasuetan ezik. Lan-taldeak aurrez aipaturiko elkarteetako eta Deustuko Unibertsitate (Bilbo) eta Euskal Herriko Unibertsitateko: Filosofi eta Letretako Fakultateko (Gasteiz) lankideez osatuak izan dira.



### a.1.1. EXCAVACIONES EN ÁLAVA

#### a.1.1.1.

##### **Cueva de Fuente Hoz**

Ánúcita, Álava. 1981 y 1982.  
II y III Campaña respectivamente.  
Dirigidas por Amelia Baldeón Iñigo.  
Subv. por la Sociedad de Estudios Vascos.

Fuente Hoz es un pequeño covacho, situado al pie de la carretera actual, en la cuenca del Bayas. Una intensa habitación ha dejado allí sus huellas, así como una última utilización de tipo funerario. Se exhumaron los siguientes niveles:

**Nivel II.** De cronología neolítica. Con huellas de hogares de tipología en «cuveta» o bolsada y restos de combustión. También aparecen fragmentarios restos paleontológicos reflejando una fauna esencialmente salvaje. En cuanto a la industria lítica destacamos los instrumentos geométricos, microburiles, láminas denticuladas, raspadores y buriles. La valoración del nivel se puede referir a un neolítico de tipos geométricos a situar en el 5.º milenio, como reflejan las dataciones de C. 14.

**Nivel III.** Ocupación de cronología epipaleolítica (6.º y 7.º milenio según datos del C.14). Este nivel presenta una clara distribución horizontal, con localización de hogar y zona de evacuación de residuos, principalmente faunísticos. El ajuar recogido, muy abundante, se agrupa de la siguiente forma: UTICO, dentro de una clara tendencia geométrica —triángulos, trapecios, segmentos— microburiles raspadores y buriles, dentro de un elevado número de restos de utillaje del fondo común. ADORNO. En relación con un posible adorno personal han aparecido colgantes de conchas marinas perforadas y barras de ocre. Se observa un aumento en este nivel de los restos PALEONTOLÓGICOS así como un menor fraccionamiento de los mismos.

Desde el punto de vista metodológico se han recogido las muestras necesarias para los análisis de polen, tierras y radiocarbónicos.

### a.1.1. ARABAKO INDUSKETAK

#### a.1.1.1.

##### **Fuente Hoz haitzuloa**

Ánúcita. 1981-82.  
II. eta III. ekinaldiak hurrenez hurren.  
Zuzendaria: Amelia Baldeon Iñigo.  
Diru-laguntzailea: Eusko-lkaskuntza.

Engungo kaminoaren oinaldean kokatuta dago, Baias arroko Fuente Hoz izeneko haitzulo txikia. Indar handiko bizialdi batek utzi ditu han bere aztarnak, baita azkenaldian ehorzketarako erabilia izanarenak ere. Honako maila hauek jaso ziren:

**II. maila.** Neolito garaikoa. Tipologiaz «kubeta» edo poltsada moduko diren sutokiak eta kimoak (erreketarrastoak). Agertzen dira baita ere fauna basati bat adierazten duten zatikatutako paleontologi geldikinek. Harrizko tresnagintzan, geometrikoak, mikrozulakaitzak, ijelki horztunak, marruskak eta zulakaitzak ditugu. C.14-ko datazioek adierazten dutenez, tipo geometrikozko Neolitoari atxikitzen zaion mailatzat har daiteke, h.d. boskarren milurtekotzat.

**III. maila.** Kronologikoki Epipaleolitoko egoitza. (C.14-ko datuen arabera, 6. eta 7. milurtekoa). Maila honek jarrera horizontal garbia dauka, sutoikiak badirelarik eta baita zaborren, batez ere faunistikoak, bota-lekua ere. Bildutako ostilamendua, oso oparoa izanik, era honetara taldekatzen da: HARRIZKOA (LITIKOA), joera geometriko garbi baten barnean —triangeluak, trapezioak, segmentuak— mikrozulakaitzak, marruskak eta zulakaitzak, tresneria amankomun multzo baten artean. APAINDURAKOA, agertu dira: itsas maskorrezko zintzilikario eta okre-barrak, apaingura pertsonalarekin, agian, zerrikusia zutenak. Maila honetan geldikin PALEONTOLOGIKOAK ugariagotu egiten direla ikusten da eta gutxiago zatikatuak daudela. Metodologi aldetik, lo-rauts-, lur-, eta erredio karbono-analisietarako lagin edo erakuskeriak bildu dira.



Cueva de Fuente Hoz.

Fuente Hoz haitzuloa.

a.1.1.2.

### **Solacueva de Lacoymonte**

Jócano. Álava. 1981. II Campaña.

Dirigida por Armando Llanos.

Subv. por la Sociedad de Estudios Vascos.

Se trata de un yacimiento en cueva, ya excavado con anterioridad por J. Miguel de Barandiarán, cuya estratigrafía se completa y revisa con el presente estudio. En las galerías interiores de la cueva hay representaciones artísticas de figuraciones humanas esquemáticas y abstracciones. Se excavaron los siguientes niveles:

**Nivel V.** Se localiza una zona de empedrado sobre la que se distribuye un considerable número de fragmentos cerámicos, con decoración técnica similar a la de «boquique» o punto en raya. También se han localizado restos cerámicos en bolsadas, correspondiendo a la misma vasija.

**Nivel VI.** Quedó subdividido en VIa y VIb, separados por una ligera capa estéril. Cronológicamente contemporáneos y restos de la misma vasija aparecieron en ambos subniveles. Aparecen cerámicas bien decoradas, a veces rodeadas de piedras, como si hubieran sido depositadas intencionalmente en cista. Con este mismo carácter de depósito aparecieron, rodeadas de piedras y juntamente con cerámicas y carbones, tres pulseras o brazaletes. Dos de forma circular forjados sobre lámina y con sección combada, una de oro y otra de plata. Otro ejemplar, también al parecer de plata, de sección circular. La fecha de este nivel, según los datos de C.14, es de  $1760 \pm 100$  a.C.

**Nivel VII.** También este nivel pudo desdoblarse en VIIa y VIIb. El primero prácticamente estéril. El VIIb se asienta directamente sobre la roca natural y apareció una estructura con cerámica, un molino amigdalóide, restos de carbón y un punzón de hueso.

En una visita al interior de la cueva se descubrieron nuevas estilizaciones humanas representadas.

a,1.1.2.

### **Lakozmonteko Solakueba**

Jokano. Araba. 1981. II.ekin.

Zuzendaria: Armando Llanos.

Diru-laguntzailea: Eusko-lkaskuntza.

Aurretik J. M. Barandiaranek indusitako haitzulo-aztarnategia dugu eta ikasketa honen bidez bere estratigrafia osatu eta berrikusi egingo da. Haitzuloaren barneko larruspetan giza irudi eskematiko eta abstrakzioak agertzen dira, artistikoki errepresentaturik. Honako maila hauek indusi ziren:

**V. maila.** Aurkitu edo lekutu den harrizturiko toki baten gainean, «bokike» edo puntudun marra moduko apaindura tekniko duen zeramika-geldikin ugari agertu da. Lurrontzi bat, beraren zatiak poltsa-detan aurkitu dira.

**VI. maila.** Geruza mehe antzu batez elkar be-reizturik zeuden VIa eta VIb mailetan azpizatitua izan zen. Lurrontzi beraren zatiak, kronologikoki garaiki-deak, bi azpimailotan agertu ziren. «Zista» moduan nahita ezarrita izan balira bezala, batzutan harriz inguraturik, zeramika ondo apaindua agertzen da. Harriz inguraturik, zeramika eta ikatzekin batera, gordailu kutsu bera duten hiru eskumuturreko edo besuztai agertu ziren. Hauetako bi forma zirkularrekoak, ijelki gainean suaroztuak edo forjatuak biaketa ebakidura kopatukoak, bat urrezkoa eta zilarrezkoa bestea. Hirugarrena, zilarrezkoa hau ere eta ebakidura zirkularrekoa. Maila honen data, C.14-ko datuen arabera,  $1760 \pm 100$  K.a. da.

**VII. maila.** Maila hau ere VIIa eta VIIb-etan banatu ahal izan zen. Lehenbizikoa gehienbat antzua. VIIb-a zuzenki bertako harkaitzaren gainean finkatzen da eta zeramika zuen egitura bat agertu zen, errota amigdalóide bat, kimo edo ikatz-geldikinak eta hezurrezko zikai bat.

Giza errepresentazio estilizatuak aurkitu ziren haitzulo barnera egin zen ikustaldi batetan.



Solacueva de Lacoymonte.  
Lacoymonteko solacueba.

a.1.1.3.

### **Los Castros de Lastra**

Caranca. Álava. 1981 y 1982.

VIII y IX Campaña respectivamente.

Dirigidas por Francisca Sáenz de Urturi.

Subv. por la Diputación Foral de Álava.

Se trata de un poblado situado en un cortante natural de fácil defensa, en el que se localiza un asentamiento de época celtibérica al que se superpone una ocupación medieval. Durante ambas campañas se trabajó en ambas ocupaciones.

**Ocupación medieval (zona II).** En esta superficie se detectó en primer lugar un asentamiento moderno —posiblemente en relación con la explotación de carbón vegetal— y que puede atribuirse a los siglos XVIII y XIX.

Un segundo nivel correspondiente a un poblado medieval, al que corresponden hallazgos cerámicos con vasijas de asa, bordes de tipo triangular, cuellos acanalados y otros, siempre en cerámica a torno de coloración anaranjada. También aparecieron dos monedas que pueden atribuirse a Alfonso X y Fernando IV o Alfonso XI. (Siglos XIII-XIV).

Un tercer nivel corresponde a la necrópolis medieval. Claramente anterior a la época del poblado y que fue en parte construido sobre la propia necrópolis. Se puede pensar en una cronología en torno al siglo XII, en su momento más moderno.

**Ocupación de la Edad del Hierro (zonas V y VI).** Se intenta, además de la excavación en extensión en las zonas enunciadas, poder establecer la entidad del nivel situado bajo la necrópolis medieval y que corresponde a la época del Hierro.

En la zona V el material es importante, reflejado en cerámicas (a mano y a torno) y en metales (fíbulas, clavos, agujas...).

En la zona VI se halla la muralla de 1 km de longitud, 4 m de anchura y 5 m de altura, en torno a cuya cara interior se ha practicado una excavación, aportando materiales exclusivamente de la Edad del Hierro.

a.1.1.3.

### **Lastrako Kastroak**

Karanka. Araba. 1981-82.

VIII. eta IX. ekinaldiak, hurrenez hurren.

Zuzendaria: Francisca Sáenz de Urturi.

Diru-laguntzailea: Arabako Foru-Aldundia.

Defentsa errazeko berezko mailo batetan kokatzen den hiriska bat da eta hor zeltiberoen garaiko finkamendu bat ageri da, gerozko erdiaroko bat gainean duela. Bi ekinaldiotan, finkamendu bietan egin zen lan.

**Erdiaroko finkamendua (II. zona).** Azalera honetan finkamendu moderno bat kausitu zen, agian, egur-ikazkintzari dagokiona eta XVIII. eta XIX. mendei egotzi daitekeena.

II. maila erdiaroko hiriska bati dagokio, horkoak izanez zeramikazko aurkikuntzok: heldulekudun ontziak, triangulu moduko erztunak, lepo kanaldunak eta beste zenbait, beti tornuzko zeramikazkoak eta kolorazio laranjatua dutenak. Gainera bi txanpon ere agertu ziren, bata Alfontso X.aren garaikoa eta beste Fernando IV. edo Alfontso XI.arenkoa. (XIII.-XIV. gizaldiak).

III. maila, erdiaroko hilerri bati dagokio. Argi eta garbi hiriskaren garaia baino lehenagokoa da hilerri hau, honen zati baten gainean eraikia izan bait zen hura. Bere momenturik berriena kronologikoki XII. mendearen ingurukoa dela pentsa daiteke.

**Burdinaroko finkamendua (V. eta VI. zonak).** Aipatutako zonetan zabalki eginiko indusketaz gainera, erdiaroko hilerriaren azpian finkaturiko burdinaroko mailaren entitatea jakiten saiatu zen.

V. zonan, garrantzitsua da materiala, zeramikek (eskuorakoak eta tornuzkoak) eta metalek (fibula, iltze, jostorraz...) erakusten dutenez.

VI. zonan, gutxi gorabehera, 1 km-ko luzera eta 4-5 m zabalera duen harresia aurkitzen da. Honen barnealdeko ingurunean soilki burdinaroko materialak eman zituen indusketa bat egin zen.





Los castros de Lastra.

Lastrako kastroak.

a.1.1.4.

«**Campas de Itaida**»

(Sierra de Entzia). Álava. 1981.

IV Campaña

Dirigida por José Ignacio Vegas.

Subv. por la Diputación Foral de Álava.

En las campas de Itaida se encuentran ubicados los siguientes yacimientos, que han sido objeto de excavación: Dolmen de Itaida Norte, Túmulo de Urkibi y Túmulo de Burandi a los que hay que añadir los Túmulos de Iturritzo, que se excavaron en la I Campaña, la Cueva de Itaida y el Menhir de Itaida. A excepción de la Cueva de Itaida, en los restantes yacimientos se ha dado por concluida la excavación.

**Dolmen de Itaida Norte**, descubierto por Aranzadi, Barandiarán y Eguren en 1920. La excavación, dado que había sido expoliada la cámara, se lleva a cabo en el túmulo, desmontándose los cuadrantes Noroeste y Sureste.

Las conclusiones obtenidas son las siguientes:

1. Que las estructuras tumulares están muy relacionadas con la utilización del terreno y con las necesidades propias de las dimensiones del monumento. No parece que responde a tradiciones culturales y sí a necesidades funcionales.

2. Que existen utilizaciones parciales del túmulo.

3. Que se recogen abundantes materiales, tanto en las inmediaciones del túmulo como en su propia estructura, e incluso en la base del mismo.

4. Que la cámara ha sido violada y revuelta e incluso la estructura dolménica destruida, por lo que resulta casi imposible su reconstrucción.

5. Que el objetivo fundamental del túmulo es hacer destacar el monumento, sostenerlo y cerrarlo.

6. Que su utilización abarca una época bastante larga, ya que junto a la presencia de materiales arqueológicos que denotan una gran antigüedad (microlitos, láminas-cuchillos, etc.), aparecen otros más recientes, como una cabeza de aguja de bronce y pequeñas y planas hachas pulimentadas en dioritas.

a.1.1.4.

«**Itaidako Zelaiak**»

(Entzia Mendizerra). Araba. 1981.

IV. ekinaldia.

Zuzendaria: José Ignacio Vegas.

Diru-laguntzailea: Arabako Foru-Aldundia.

Itaidako zelaietan induskai izan diren aztarnategiok kokaturik daude: Ipar-Itaidako Trikuharria, Urkibi eta Burandiko tumuluak eta Gaztalamendiko harri-zirkulua. Hauei Iturritzoko tumuluak, lehenengo ekinaldian indusiak, Itaidako haitzuloa eta iruinarria gehitu behar zaizkie. Itaidako haitzuloan ezik, gainontzeko beste aztarnategietako indusketa bukatutzat jo da.

**Ipar-Itaidako Trikuharria.** Aranzadi, Barandiarán eta Eguren 1920an aurkitua da. Ganbara bortxatua zegoenez gero, tumuluaren iparmendebal eta hegoekialdeko koadranteak erauziaz egin zen indusketa. Lortutako emaitzak honoko hauek dira:

1. Tumulu-egiturek zer ikusi handia dutela bai eremuaren erabilerarekin eta baita, monumentuaren neurriek berez sortutakoekin. Honek ez dirudi tradizio kulturalekin zer ikusirik duenik, baína bai, berriz, beharizan funtzionalekin.

2. Tumuluaren erabilerak partzialak ere izan direla.

3. Material ugari aurkitzen dela tumuluaren inguruan eta beronen egituren, halaber, tumuluaren funtsaldean eta hau osatzen duen harkaitzaren zirrikituetan.

4. Ganbara bortxatua eta nahastua izatez gainera, trikuharri-egitura desegina izan zela, eta horregatik monumentuaren berreraikuntza ezinezkoa gertatzen dela.

5. Tumuluaren helburu nagusia monumentua nabarmentzea, eustea eta ixtea dela.

6. Honen erabilerak denboraldi luze samarra irauten duela, zeren eta aintzintatasun kutsu handia duten material arkeologikoekin batera (mikrolitoak, aizto-ijelkiak, etab.) beste berriago batzu (brontzeko jostorraz-buru bat eta diorita leunduzko aizkora txiki eta zapalak) agertzen bait dira.

7. Atribuciones culturales son imposibles de realizar en el momento presente, pero apuntan hacia una utilización del monumento desde el Neolítico Final a la Edad del Bronce.

8. Se han recogido restos humanos en buen número, sobre todo dientes que, una vez estudiados, nos podrán determinar con cierta aproximación el número de individuos inhumados.

**Túmulo de Urkibi.** Descubierto y explorado por Aranzadi, Barandiarán y Eguren en 1920, con resultados negativos. Se han levantado todos los cuadrantes, siguiéndose el sistema de excavación propio de estos monumentos y aplicado también al anterior.

Las conclusiones provisionales son las siguientes:

1. El aprovechamiento de la estructura de la roca base para conseguir la noble apariencia del monumento es clarísimo.

2. Las estructuras son plenamente funcionales y son consecuencias de la necesidad que crea el terreno para conseguir la apariencia homogénea.

3. La cámara había sido labrada en la roca base, por lo que pensamos que no fue, en principio, un monumento megalítico, a la manera de dolmen, construido con piedras, sino que muy bien pudo utilizarse para cerrar la cámara otro tipo de material.

4. La aparición de dientes humanos y otros huesos en la cámara y zonas cercanas, evidencian su utilización como monumento funerario.

5. Si bien es cierto que la cámara apenas presentó evidencias arqueológicas tanto en el túmulo como en sus alrededores éstas aparecen con frecuencia.

6. La asignación cultural y temporal del monumento ofrece muchas dificultades, ya que existen materiales muy variados, algunos de los cuales denotan gran antigüedad e incluso una fechación absoluta atribuible a la Edad del Hierro.

7. Cultura bati egoztea gaurregun ezinezkoa izan arren, monumentua Azken-Neolitik Brontzera bitartean erabilia izan zela uste izatera garamate aztarnek.

8. Giza geldikinak, hortzak batipat, kopuru handitan jaso dira, behin aztertu eta gero, ehortzita-ko gizaki-kopurua mugatzen lagunduko dutenak, gutxi gorabehera hurbil batez behintzat.

**Urkibiko Tumulua.** Aranzadi. Barandiaran eta Egurenek 1920an aurkitu eta ikustatua, emaitzak negatiboak izanez orduan. Aurrekoan ere erabilitako eta monumentu-mota hauei dagokien indusketa-sistemari jarraituz koadrante guztiak jaso dira.

Behin-behineko emaitzak honoko hauek dira:

1. Oin-harriko egituraren baliakuntza oso nabaria da, monumentuaren itxura bikaina lortzeko asmoz.

2. Egiturak guztiz funtzionalak dira eta itxura homoginoa erdiesteko lekuak sortzen duen beharri-zanaren ondorio.

3. Ganbara oin-harrian zulatua izan zenez gero, hasiera batetan ez dugu uste, harriz eraikitako trikuharri gisako monumentu megalitikoak izan zenik, baizik eta ganbara ixteko beste materialen bat erabiliko zutela.

4. Giza hortzak eta beste zenbait hezur, ganbaran eta honen inguruan agertzea, ehorzketa-monumentu gisara erabilia izan zenaren argibide dugu.

5. Ganbaran aztarna arkeologiko oso gutxi agertu arren, tumuluan eta honen inguruan maiz agertzen dira.

6. Monumentua kultura eta garai jakin bati egoztea zaila gertatzen da, oso material ezberdinak bait daude, horietako batzuek aintzintasun handia izanik, Burdinaroari egotz dezakeen datazio absolutua ematerainoxekoa.



**Túmulo de Burandi**, descubierto por Galilea y Madinabeitia y excavado con la misma técnica que los monumentos anteriores.

Como conclusiones provisionales se puede decir que:

1. Tanto por su estructura como por los materiales recogidos y su distribución, este monumento es completamente diferente a lo encontrado por ahora, al menos en el País Vasco.

2. No se ha podido recoger ninguna evidencia de su utilización como monumento funerario, pero sí de su carácter arqueológico.

3. Se pueden efectuar conjeturas sobre su utilización, pero todas ellas deberán ser contrastadas con los análisis y estudios que se están realizando.

**Circulo de piedras de Gaztalamendi**, situado en la ladera sur del monte Arrigorrista. Se siguió el mismo método de excavación que para los túmulos.

Los resultados provisionales son los siguientes:

1. Es una estructura artificial, en la que las piedras no forman un círculo, siendo posible que haya perdido su forma original, ya que algunas no parecen encontrarse en su sitio.

2. Es arqueológico, puesto que en la primera capa excavada, tanto dentro como fuera del espacio que delimitan las piedras, se han recogido más de 70 evidencias arqueológicas entre sílex, cerámica a mano y pulimento, así como restos de carbón.

3. Por el momento, no es posible explicar su utilización ni su época.

**Burandiko Tumulua**. Galilea eta Madinabeitiak aurkitu zuten eta aurreagoko monumentuetako teknika berarekin indusi da.

Behin-behineko emaitzak hauek direla esan daiteke:

1. Bere egituragatik eta bertan jaso diren material eta berauen banakeragatik, orain arte behintzat Euskal Herrian aurkitu izan diren monumentu guztietatik zeharo ezberdina da.

2. Ehorzketa-monumentu gisara erabili izan denaren adierazpen nabaririk ez da jasotzerik izan, baina bai bere arkeologikotasunarenik.

3. Bere erabilerari buruzko usteak eduki daitezke, baina egiten ari diren analisi eta ikerketeekin aurrez aurre ipini beharko dute gero.

**Gaztalamendiko Harri-zirkulua**. Arrigorrista mendiaren hegoaldeko hegalean kokatua dago. Tumuluetarako erabilia den indusketa-metodo bera jarraitu zen.

Behin-behineko emaitzak honoko hauek dira:

1. Harriek zirkulu bat eratzen ez duten egitura artifizial bat da, baina bere jatorrizko forma galdu izana ere daitekeena da, harri batzu tokiz kanpora daudela bait dirudi.

2. Arkeologikoa da. Indusitako lehen geruzan suharri, eskuz eginiko eta leundutako zeramika eta ikatz-hondarren artean 70 geldikin arkeologiko bildu dira, harriek mugatzen duten barrutian eta kanpokaldeko inguruetan.

3. Oraingoz ez da posible ez bere erabilera eta ez erabileraren garaia adieraztea.

Túmulo  
de Urkibi.  
Urkibiko  
tumulua.



Dolmen de  
Itaida Norte.  
Ipar-Itaidako  
trikuharria.



a.1.1.5.  
La Hoya.

Laguardia. Álava. 1981 y 1982.  
IX y X Campaña respectivamente.  
Dirigidas por Armando Llanos Ortiz de Landaluze.  
Subv. por la Diputación Foral de Álava.

Las investigaciones se realizan desde 1973, y en las campañas aquí reseñadas, que mantienen y aumentan el caudal de datos aportados hasta el momento, se trabajó en tres sectores concretos:

Sector I. En la parte central del yacimiento. En ella se estudia la estructura urbana del yacimiento así como una de sus entradas —sur—, marcada por una empalizada que se levanta mediante gruesos postes. En el punto de entrada se conservan huellas de rodadas de carros.

Se estudió el primer nivel celtibérico quedando definidas de una manera total la estructura viaria de esta zona del poblado y el correspondiente trazado de las viviendas que se desarrollaron a ambos lados de estas calles. Es interesante destacar las grandes diferencias que presentan las estructuras de dichas viviendas, según se encuentren a un lado u otro de estas calles. En unos casos siguen manteniendo las estructuras clásicas de este período a base de zócalo de piedra y levantes de madera y adobe, sin embargo, en otros espacios su construcción parece estar basada principalmente en estructuras de madera. De la misma forma los ajuares aparecen también claramente diferenciados. En los primeros casos los materiales cerámicos son principalmente de piezas elaboradas a torno, siendo cerámicas realizadas a mano las que se encuentran en la casa del segundo tipo. Igualmente el resto del ajuar es mucho más rico, especialmente en cuanto a herramientas y otros objetos, en los ambientes de cerámicas a torno. Esta diferencia no hace sino confirmar un hecho ya observado en anteriores campañas en amplias zonas del poblado. Es decir que los valores celtibéricos implantados en un determinado momento en el poblado no desbancan la primitiva cultura ya existente, sino que conviven en el tiempo. Es entre estos materiales cerámicos más

a.1.1.5.  
La Hoya

Biazteri. Araba. 1981-82.  
IX eta X ekinaldiak hurrenez hurren.  
Zuzendaria: Armando Llanos Ortiz de Landaluze.  
Diru-laguntzailea: Arabako Foru-Aldundia.

1973tik hona ari dira hemen ikerketan eta aipaturiko ekinaldiotan hiru sektoretan egin zen lan, honela orain arteko datu-emariari jarraipena emanez eta handiagotuz:

I. sektorea, aztarnategiaren erdialdean. Hiri-egitura ikertu zen hemen, eta baita zutoin lodiz eraikitako hesiz seinalatua dagoen hegoaldeko sarreretako bat ere. Sarreraune honetan karroen gurpil-arrastotak kontserbatu dira.

Lehen maila zeltiberiarra ikertu zen erabat ongi definiturik hiriskaren une horretako bide-egitura eta kale hauen bi alboetara garatu diren etxe-trazadura ri dagokiona.

Interesgarria da kale hauen alde batera eta bestera dauden etxe horien egiturek dituzten ezberdintasunak nabarmentzea. Kasu batzutan, garai honetako egitura klasikoa mantentzen jarraitzen dute: harrizko hormoin eta pezo eta zurezko altxagarriez eginak, baina beste batzutan bere eraikuntza zurezko egituretan oinarritua dagoela dirudi. Era berean, ostilamenduak garbi bereiztuak agertzen dira. Lehenengo kasuan, material zeramikoa gehienik tornuz eginak daude, bigarren motako etxeetan, berriz, eskuz eginak. Beste ostilamenduak ere aberatsagoak dira tornuzko zeramika denetan, batipat tresna eta beste gauzetan. Ezberdintasun honek aurrerago-ko ekinaldietan hiriskaren une zabaletan oharturiko gertaera bat baieztatu, besterik ez du egiten. Hau da, momentu jakin batetan hiriskan ezarriak diren balore zeltiberiarrek ez zutela desleketu lehendik zegoen kultura, elkarrekin batera bizi izan zirela baizik. Material zeramiko zaharren hauetan mota berriko zeramika eszisoak, ontzi polipodoak eta abar agertu dira, orain arte ezezagunak hiriskan.



La Hoya.  
Laguardia.  
La Hoya.  
Biazteri.

primitivos donde han aparecido nuevos tipos —desconocidos hasta ahora en el poblado— como cerámicas excisas, recipientes polípodos, etc.

**Sector II.** En él se pretende el estudio de las ocupaciones indoeuropeas. Destacan en ella las estructuras sobre postes de madera —cuyos agujeros son perceptibles—, suelos de tierra batida ornamentados con frisos de pinturas en rojo, a bandas, y ajuares cerámicos decorados por incisiones, muebles, así como un aumento del material lítico. Son también interesantes los restos de enterramientos infantiles localizados en las mismas áreas de habitación, con importantes ajuares asociados.

**Sector III.** La misión en este sector fue la de definir estructuralmente las huellas de postes marcados sobre la roca base. Juntamente con los materiales correspondientes a este poblamiento indoeuropeo se acusaron rastros —punta de flecha de pedúnculo y aletas en sílex, fragmento de vaso campaniforme y algún otro material lítico— de las culturas del Bronce pleno, tan bien representadas en los alrededores, especialmente en las estructuras dolménicas. También aparecieron enterramientos infantiles bajo las viviendas.

a.1.1.6.

**Yacimiento romano de Arcaya.**

Arcaya. Álava. 1981 y 1982.  
V y VI Campaña respectivamente.  
Dirigidas por Luis Ramón Loza Léngaran.  
Subv. por la Diputación Foral de Álava.

El yacimiento está situado en el pueblo de Arcaya, término de Otazibarra. En ambas campañas se finalizó la zona planificada para ser excavada y se dejaron protegidas las estructuras exhumadas. En la actualidad se pueden observar 800 metros cuadrados de yacimiento con delimitación de habitaciones, conducciones, suelos, columnas, pozos, el hipocausto, caldarium y la piscina. En la actualidad se ha cercado el yacimiento para evitar su rápida degradación.

**II. sektorea.** Bertan egindako lanen asmoa egoitza inoeroparren ikerketa izan da. Nabarmen-tzen dira: zurezko zutoin gainean eraikitako egiturak —berauek utzitako zuloak nabariak dira—, pintura-frisoz gorritz zirrindatan apaindutako lur xehetuzko zoruak, eta intzizioz apaindutako ostilamendu zera-mikoa, malgukiak eta harrizko materialaren ugari-tzea. Interesgarriak dira baita ere bizilekuetan ber-tan kokatuta ostilamendu garrantzitsuekin batera dauden haur-ehorzketen geldikinak.

**III. sektorea.** Sektore honetako lanen beteki-zuna oin-harian markaturik zeuden zutoin-arrastoak estrukturalki zehaztea izan zen. Inoeropar popula-mendu honi dagozkion materialekin batera Brontze Beteko kulturen adierazgarri direnak agertzen dira: suharrizko gezi-punta hegaldun eta txortenduna, ez-kilaireko baso-zatiak eta beste harrizko materialen bat; han inguruetan ugari dira material hauek, bere-ziki egitura dolmenikoetan. Halaber, etxebizitzan az-pietan haur-ehorzketak agertu ziren.

a.1.1.6.

**Arkaia erromatar aztarnategia.**

Arkaia. Araba. 1981-82.  
V eta VI. ekinaldiak hurrenez hurren.  
Zuzendaria: Ramón Loza Lengaran.  
Diru-laguntzailea: Arabako Foru-Aldundia.


Aztarnategia Arkaia herrian kokatua dago. Ota-zibarrako udal-barrutian. Bi ekinalditan industeko plangintzatua zegoen zonaldea bukatu ahal izan zen eta babestuta utzi ziren azaldutako egiturak. Gaurre-gun, beha daitezke aztarnategiaren 800 metro karra-tu, horren barnean gelak, ubideak, zoruak, zutabeak, putzuak, hipocaustum, caldarium eta igerilekua ongi mugatuak direla. Beste anderakuntza bizkorra era-gozte arren, aztarnategia hesiz inguratu da.



araba

**ALAVA / ARABA**

1. Cueva de Fuente Hoz.  
*Fuente Hoz haitzuloa.*
2. Solacueva de Lacoymonte.  
*Lakoymonteko Solakueba.*
3. Los Castros de Lastra.  
*Lastrako Kastroak.*
4. «Campas de Itaida».  
*«Itaidako Zelaia».*
5. La Hoya.  
*La Hoya.*
6. Yacimiento romano de Arcaya.  
*Arkaiaiko erromatar aztarnategia.*
7. Yacimiento de San Miguel de Atxa.  
*Atxako San Migel aztarnategia.*
8. Cueva de Itaida I.  
*Itaida I Haitzuloa.*
9. Yacimiento de Arrigorrista.  
*Arrigorristako aztarnategia.*
10. Yacimientos al aire libre del Río Rojo.  
*Rio Rojoko airezabaleko aztarnategiak.*
11. Cueva de Kukuma.  
*Kukuma haitzuloa.*
12. Sondeos Estratigráficos y excavaciones de urgencia  
*Estratigrafi zundaketak eta premiazko indusketak*



a.1.1.7.

#### **Yacimiento de San Miguel de Atxa**

Vitoria. Álava. 1982.

I Campaña de excavaciones.

Dirigida por Luis Ramón Loza Léngaran.

Subv. por la Diputación Foral de Álava.

El yacimiento se puede englobar cronológicamente en la Edad del Hierro, si bien la presencia en la capa superior de «terra sigillata» hizo pensar en un principio que se trataba de un yacimiento de época romana y desde ese punto de vista se planificó su excavación.

Se han excavado 90 m<sup>2</sup> hasta una profundidad de 1 m, donde se halla la roca madre sobre la que se asienta el poblado. Los resultados permiten realizar las siguientes consideraciones:

Por una parte las diferentes señales de la construcción de una cabaña de fondo probablemente circular agujeros en la roca correspondientes a las pequeñas excavaciones realizadas por los indígenas para soportar los postes. Por otra parte, las hiladas inferiores de varios muretes que forman al menos una habitación un poco más al sur de la zona que denominamos de la cabaña.

